

Xede Bereziatarako Hizkerak (XBH) Katalunyan

Mercè Solé/Lluís Ràfols

XBH landu eta zabaltzea da gaur egun Katalunyako hizkuntzalaritza aplikatuaren ardatz nagusienetako bat.

Bi dira egoera horretarako bidea eman duten faktoreak. Alde batetik, hizkuntz teoriaran espezializazio tekniko eta zientifikoak sortutako komunikazio-eskakizunei derrigorrean egokitu beharra. Bestetik, hizkuntzaren normalkuntz prozesuan murgilduta da goen gizartearen hizkera berezituak landu eta hedatzeak erreferente bat eskatzen duela ezinbestean, hizkuntzaren erabileraren normalkuntza benetan bideratzeko gauza izango dena eta bideratuko duena. Esandako bi alderdi horiek historiaren une berean gertatzeak, dudarik gabe, Katalunyako hizkuntzalaritzari egoera berezia eta oso berea ekarri dio.

Katalanak, eta anglosaxoi ez diren beste hizkuntza askok, aurkitzen duten oztopo nagusienetako bat ingelesaren gailentasun teknologikoa da, ondorio linguistiko begibistakoak dituen. Esperimentu eta aurkikuntza zientifiko asko hizkuntza horretan bideratzen dira; aurrerapen teknologikoen azkartasuna eta komunikazio-sistemen hedapena direla medio, terminoen finkapena aski zaila izan daiteke forma berriei berehala erantzuten ez zaien

hizkuntzatan. Ez dira urriak egoera hau argitzen duten adibideak: *soft*, *hard*, *intro*, etab. kasu. Horiek horrela, terminoen sorkuntza eta finkapenerako erakundeek eginkizun erabakiorra dute normalizazio-prozesuen arrakasta bermatzeko. Hauxe da TERMCATen kasua (Centre de Terminologia Catalana), jardun-alor desberdinetako terminologiaren lanketa sustatu eta koordinatzeko ardura bait du.

Katalunyan XBH landu eta hedatze-
ra emandako erakunde instituzionalak badaude, eta horixe da hizkuntz normalkuntza orokorraren prozesuen arrakasta espero izateko baldintzetan bat.

Katalanak agian izango duen abantaila bat, eta ez da katalanarena bakarrik, baizik eta beren hizkuntza berreskuratzen ari diren guztiena (Quebec-eko frantsesarena kasu), prozesuen paralelismoa da hain zuzen. Alde batetik, komunikazioko behar berriei erantzuteko hizkuntz eredu egokiak landu behar dira eta, aldi berean, ezinbestekoa da eredu horiek profesionalen artean zabaltzea, hauek bait dira xede bereziatarako hizkeren berezko erabiltzaileak.

Katalunyan aldi eta ildo beretik gauzatzen ari dira araugintz prozesua (hiz-

kuntzaren gorputza landu edo/eta ego-kitzea) eta hizkuntz normalizazioaren prozesu orokorra.

Begien bistakoa da oraindik ere ordezkatzenean, inpasean, gaudela. Talde desberdinei proposatuko dizkiegun formak landu eta definitzen ari gara oraindik eta, ondorioz, urteak joango dira xede berezietako hizkerak eta espezialidadeak (hau baita komunikazioaren esparrua) aldi berean ikas daitezen baino lehen. Bidezkoa da, noski, pentsatzea zuzenbidea ikasten dutenek hizkera juridiko katalana beren karrerako gai bat bezala ikasiko dutenean, aurrerapausu ikaragarria izango duela eginga hizkuntza katalanak. XBH-en lanketa-mailaren azterketari ekin aurretik, hizkuntzaren arau orokorrak, XBH-ri ez ezik hizkuntza orokorrari ere badagozkionak, lantzeko modua aztertu nahi genuke. Hauxe da laburdurei, siglei, maiuskula eta minuskulen, lanbide-izenen feminisazioari buruzko akordioen kasua. Garai batean, hizkuntz ereduaren lanketari emandako erakundeetako bakoitzak bere formak zituen, komunikazio-alor jakin bati zegozkionak. Comissió Assessora de Llenguatge Administratiu (CALA) sortzeak, ordea, irizpideak bateratu eta eztabaida-eremua zabaltzeko bidea ematen du, proposamenak hain lokalak izan ez daitezen, baizik eta ahalik eta neutroen eta zabalenak. CALA-n parte duten erakunde guztien eta bakoitzaren ardura da proposamenak erabiltzaileen artean banatzea.

Ekimenak koordinatzeko gune horretan lekutu behar da *tronc comú dels llenguatges d'especialitat*. Egitasmo honen lanketa erreferentzi puntu da geroan XBH programak egokitzeko. Xede bikoitza du programa horrek: alde batetik, hizkuntz lanketa handirik eskatzen ez duen espezialitatearen bateko egitasmoari ekiten zaionean, hizkuntz ereduak eta testuen tipologia sistematzea; eta, bestetik, XBH-en antola-

keta eta hedapena era homogeneoan egiteko pentsatua egotea.

I. Mari-k *Anthropos* aldizkarian (2-88) egin zuen bezala, lau sail handitan banatuta aztertuko dugu gaingiroki XBH-en lanketa eta hedapenaren nondik norakoa: administrazioa, hezkuntza, komunikabideak eta lanbide merkataritzako komunikazioak.

ADMINISTRAZIOA

Hauxe da, zalantzarik gabe, gehien mugatu, ezaugarritu, zabaldu eta, esatera ausartuko ginateke, gehien erabiltzen den XBH. Finkapen-lan nekosoan egin dute administrazioako alor guztiek hizkuntz finkapenean eta asko saiatu dira eredu horiek zabaltzen. Alde horretatik, esanahi handikoa da administrazioko katalana aztertu eta zabaltzen duten saiakeren ugartasuna (bai pribatuak, bai publikoak). Bestalde, departamenduetako erakundeek hainbat dokumenturen ereduak facsimil gisa erabiltzeko argitaratu izanak beren lanean tresna egokiak eskura edukitzeko aukera ematen die administrazioko langileei. Azkenik, Escola d'Administració Pública (EAP) delakoaren eskutik administrazioaren langileentzat antolatu diren hizkuntz ikastaro bereziek berezko erabiltzaileen artean hizkera juridikoa zabaltzea segurtatu du.

HEZKUNTZA

Alor honetan egin diren ahaleginetarik asko oinarritzko hezkuntza katalanez ematera zuzendu da. Unibertsitateetako Institut de Ciències de l'Educació (ICE) delakoek katalunieraz birziklatzeko antolatu dituzten ikastaroek oinarritzko hezkuntzako eta hezkuntza ertainetako irakaslerik gehienek beren lana katalanez egin ahal izateko hainbat ezagutza eskuratzea ahalbide-

ratu dute. Bigarren aro bat hasia da, birziklatzeko programa orokorraren barnean, 89-90 ikasturtean UBI eta COUko irakasleei zuzendua, bakoitzak bere espezialitateko ezagutza terminologiko bereziak izan ditzan (marrazkia, matematikak, bizitzako zientziak...).

Unibertsitatean Servei de Llengua delakoek hizkuntz ereduak lantzeari ematen diote beren baliabideetako zati handi bat. Bartzelonako Unibertsitateko Servei de Llengua Catalana izango da seguraski ekinaldirik gehien antolatzen duena; izan ere, giza eta eskualtekoen aldetik hobeto hornitua egoteak oso behar bereziak dituzten taldeentzat neurri-neurriko ikastaroak antolatzekeo parada ematen bait dio: jendeari atenezko langileentzat, xede akademiakoetarako ahozko hizkera (irakasleak); eta prestatzen ari direnak: zuzendari-tza-idazkarietarako eta osasun-zientzietako langileentzako ikastaroak. Unibersitat Politècnica-ko Servei de Llengua i Terminologia-k hizkera tekniko eta zientifikoa irakasteko ikastaro bat antolatu eta eman du.

Ezin dezakegu aipatu gabe utzi bizi-tza publikoko zenbait alorretan katalanak duen egoera, are larriagoa profesional asko oso hizkuntz heziketa murriztaren jabe delako. Behin baino gehiagotan aurkitu izan gara testuak (unibertsitateko azterketatik hasi eta artikuluko zientifikoetaraino) argitaratu aurretik zuzentzen hasitakoan ez bakarrik hizkuntz egitura morfosintaktikoak, baizik eta testuaren koherentzia, kohesio eta egiturari zegozkien okerrak zuzendu beharrean. Hizkuntz formazioa edozein hezkuntzaren zatitzat ez jotzeak horixe dakar: espezialista ospetsuek komunikatzeko zailtasunak edukitzea. Espero dezagun aurrerantzean, formazio-egitasmo orokorretan, espezialisten artean erraz komunikatzeko hain oinarrizko diren elementuak sartuko dituztela.

KOMUNIKABIDEAK

Catalunya Ràdio eta TVE3 dira, ikusentzunezkoen artean, ereduak landu eta zabaltzen gehien esku hartu dutenak. Erakundeok badute beren azpiegitura organikoan Unitat d'Assessorament Lingüístic (UAL) delakoa, esatari eta idazleen hizkuntzaren ontasuna sistematikoki zaintzen duena.

Direcció General de Política Lingüística-k (DGPL) kiroleko esatarietarako ikastaro bat antolatu du. Ebaluatu eta berraztertu ondoren, herri eta eskualdeetako irratietako kirol esatariei eskainiko zaie. Aurrikusita dago esatarietarako berehala ikastaro bat antolatzeari, 1990eko urritik aurrera egingo dena.

Prentsa idatziari dagokionez, egunkari eta aldizkari bakoitzak du, bidezko denez, bere estilo-liburu berezia. Diari de Barcelonak bakarrik azaldu du bere hizkuntz ereduak, argitaratu emanez azaldu ere.

ARGITARAPEN PROFESIONAL ETA KOMERTZIALAK

Arlo hauetan gehien landutako hizkera komertziala da. Eredu asko daude eskura, erakunde bat baino gehiago aritu bait da eredu horiek fitxa edo/eta eskuliburu gisa erraz erabili eta kontsultatzeko moduan antolatu eta argitaratzen. Horrelako materialak eskura edukitzeak enpresa eta dendei hizkera komertzialeko ikastaroak eskaintzeko aukera eman die.

Hizkera juridikoaren alorrean, hizkuntz ereduak ugari dago landua zuzenbide publikorako. Eredu horien ildotik, hizkera juridikoaren ikastaro bat antolatu du DGPL-k. Honek berak, EAP-ekin lankidetzan, irakasleei hizkera juridikoa irakasteko ikastaro bat antolatu du eta gero testu juridikoak ikertzeko mindegi bat. Azkenik, Vic eta Gironan,

hainbat erakunde publiko eta pribatu antolatuta, egin diren justiziaren administrazioen hizkuntza normalizatzeko ekinaldien ondorio biderkatzaileak aipatu beharrekoak dira. Zalantzarik gabe, era horretako ekinaldiak laguntzabide handiak izan dira arlo horretan ari direnei hizkuntz materialak eskuratzeko, beren lana katalanez egin dezaten. Ekinaldi horien barruan hizkuntz formaziorako ikastaroak antolatu dira: hizkera juridikorako sarrera, justiziaren langileentzako (administratiboentzako) hizkuntz ikastaroak, etab.

Eragozpen batekin egiten du topo XBH-en hedapenak profesionalen artean: enpresek gehien eskatzen dituztenak hizkuntza orokorraren ikastaroak direla. Gaur egun prozesua XBH ikasten hasi baino lehen hizkuntz gaitasun orokor oinarritzko sendoa eskuratzeko mailan dago oraindik.

Hizkera juridiko eta kormertzialeko ikastaroez gain beste bat ere antolatu da: jendeari ahoz atenditzeko; eta egokitu ere egin da komunikazio-behar desberdinetarako (zerbitzariak, dependienteak, telefonariak, udaltzainak...).

Lanetik kanpo bakarrik eskain daitekeen XBH ikastaroak ere badira zenbait talderentzat. DGPL-k hitzarmenak sinatu ditu zenbait kolegio profesionalekin, beste zenbait normalizaziorako ekintzaz aparte, ikastaroak antolatzeko. Horrela, adibidez, Katalunyan Col.legi de Periodistes-ekin elkarlanean kiroleko esatarientzat antolatu zen ikastaroa. Col.legi d'Advocats-ekin eta Col.legi de Farmacèutics-ekin hizkuntz normalizaziorako sinatu diren hitzarmenak esparru egokia dira epe motzera ikastaroak antolatzeko; orain diseinu eta antolakuntz unean daude, farmazilarientzat, esate baterako.

Azken lerroetan esan dugunez, gizarte zibila ere, Administrazioarekin batera, ari da hizkuntz normalizazioaren prozesuan behar diren tresna propio eta ezinbestekoz hornitzen. Erakundeetako komunikazioekin zerikusia duten alderdi guztiez arduratzen diren lan-unitate bezala antolatutako hizkuntz zerbitzuak sortzea da lehenengo helburua, horien egitekoa bait da erakundearen behar komunikatiboak aztertuta, sistematu eta berauei irtenbide ematea. Hau da: behar eta egoki diren hizkuntz ereduak moldatzen dira, jardun-eremu berean ari diren langileen arteko komunikaziorako baliagarriak. Hasi dira gauzatzen ekintza hauen emaitzak: sindikatuen testuak idazteko ikastaroak, zuzendaritza-idazkarientzako hizkuntz ikastaroak, etab.

Alde horretatik, martxan dauden normalkuntz kanpainak dira XBH ikastaroen eskaintza egitera behartu duten elementuetako bat. Horrela, esaterako, automozio-kanpainaren barruan, gidari-eskoletako irakasleentzako ikastaroak antolatzen ari dira; kirolaren kanpainan, kiroleko monitorean, kiroleko ahozko hizkera-ikastaroak.

DGPL-k bere lana alorka (sozioekonomikoa, soziokulturala, kanpora begirakoa...) egiteko orientazio berriak bi eratako eragina izango du XBH-en eraketa eta zabalkuntzan:

- a) komunikazioko ildo gehiago urratuko ditu eta horrela giza talde gehiagoren beharrak kontuan hartzeko modua egongo da eta
- b) planak egiterakoan, behar berezien berri jakiteko era izango da, eta gero, asmo horiek zertzekoan, XBH ikastaroak eskaini ahal izango dira ekintzetako egitarauen elementu estruktural gisa.

Itzultzailea: Boni Urkizu

LOS LENGUAJES DE ESPECIALIDAD EN CATALUÑA

La década de los noventa supone para la lingüística aplicada catalana el período de elaboración, fijación y difusión de los lenguajes de especialidad, de la misma manera que la de los ochenta ha sido el período de iniciación de las actuaciones sistemáticas en el campo de la terminología. En Cataluña, la adaptación del corpus a las nuevas necesidades comunicativas generadas por la especialización técnica y científica coincide con el proceso general de la normalización lingüística. El éxito de la normalización lingüística exige el éxito del proceso de elaboración y difusión de los lenguajes de especialidad. En los distintos ámbitos de

comunicación, la situación actual es desigual: el aprendizaje de la lengua de especialidad no se realiza en el mismo momento en que se aprende la especialidad; determinadas funciones específicas parten de una tradición lingüística en catalán (lenguaje administrativo), mientras que otras no parten de modelos (lenguaje científico); en determinados sectores las iniciativas provienen de los mismos destinatarios (abogados); etc. La coordinación de iniciativas y actuaciones entre el sector público y el privado es una de las condiciones necesarias para dar respuesta a las necesidades de comunicación de la sociedad del siglo XXI.

LANGUAGE FOR SPECIAL PURPOSES IN CATALÒNIA

In the field of applied linguistics in Catalonia, the nineties are likely to be a period of elaboration, establishment and diffusion of language for special purposes, in the same way that the eighties were the period in which systematic proceedings in the field of terminology began. In Catalonia adaptation to the new communicative needs generated by technical and scientific specialization is taking place along with the general process of linguistic standardization. Success in linguistic standardization requires success in the process of elaboration and diffusion of language for special purposes. In the different sectors of communication, the current

situation is somewhat irregular: specialized language is not learned at the same time as the speciality, a number of specific duties or jobs have their basis in a linguistic tradition in Catalan (eg, the language of administration) while others do not follow on from any model (eg, scientific language), in certain sectors the initiative in developing language originates with those to whom this language is destined (eg, lawyers), etc. The coordination of initiatives and proceedings between the public and private sector is one of the conditions necessary to be able to respond to the communication needs of society in the 21st century.

LES LANGAGES DE SPÉCIALITÉ EN CATALOGNE

La década des années quatre-vingt-dix implique, pour la linguistique catalane appliquée, la période d'élaboration, fixation et diffusion des langages de spécialité, de même que les années quatre-vingts ont été la période d'initiation des actions systématiques dans le domaine de la terminologie. L'adaptation, en Catalogne, du "corpus" aux nouveaux besoins de communication entraînés par la spécialisation technique et scientifique, coïncide avec le processus général de normalisation linguistique. La réussite de la normalisation linguistique exige le succès du processus d'élaboration et de diffusion des langages de spécialité. Dans les différents domaines de la communica-

tion, la situation actuelle est inégale: l'apprentissage de la langue de spécialité ne se fait pas au même moment où l'on apprend la spécialité. Quelques fonctions spécifiques partent d'une tradition linguistique en catalan (langage administratif), alors que d'autres ne partent d'aucun modèle (langage scientifique). Dans des secteurs déterminés les initiatives proviennent des destinataires eux-mêmes (avocats...). La coordination d'initiatives et d'actions, entre le secteur public et le privé, c'est une des conditions nécessaires pour répondre aux besoins de communication de la société du XXI^e siècle.